



20. arogazki lehia eta

1 PARTE-HARTZAILEAK

Nahi duten guztiek parte har dezakete argazki-lehiaketa honetan, ezarritako modalitateen barruan, betiere.

2 MODALITATEA

Argazkiak zuri-beltzean edo koloretan aurkez daitezke.

3 GAIA

Gaia edozein izan daiteke baina lanak originalak eta argitaratu gabeak izan behar dira. Lanak beste lehiaketaren batean saritu gabeak izan behar dira.

4 LANEN EZAUGARRIAK

Argazkiak euskarri zurrunean (luma-kartoia, passpartout edo antzekoa) aurkeztuko dira, eta euskarri horrek 30 x 40 cm eta 2 mm-ko lodiera (gutxi gorabehera) izan behar du. Era berean, aurreko aldean ezin izango da jarri ez kristalik ez antzeko materialik. Argazki-paperaren neurria: ez dago gutxieneko neurririk; gehienez, euskarriak beste neurtu beharko du.

5 LANAK AURKEZTEA

Lehiaketara aurkeztutako lanekin batera, oinarri hauen eranskin gisa doakizuen inskripzio-orria (beteta eta gutunazal itxi batean sartuta) edo parte-hartzailearen datuak (izena eta abizenak, helbidea eta telefonoa) jasotzen dituen agiri bat aurkeztu behar da. Aurkeztutako lanak eta datuak dituen gutunazala beste gutunazal handiago baten barruan aurkeztuko dira. Gutun handiago horretan ez da jarriko egilea identifikatu dezakeen zehaztasunik. Lan bakoitzaren atzekaldean bere izenburua idatziko da. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, banan-banan edo multzoan.

6 LANEN ENTREGATZEA

Lanak posta ziurtatuaren bidez bidali edo zuzenean entregatu daitezke helbide honetan:

KULTUR LEIOA – Kultura Saila

Jose Ramon Aketxe Plaza, 11

48940 LEIOA (Bizkaia) / Telefonoa: 94 607 25 78

Bidaltzerakoan, lanak galdu edo hondatzen badira, antolatzaileek ez dute bere gain erantzunkizunik hartuko.

7 LANAK AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko epea 2006ko urriaren 20an amaituko da, 14:00etan.

8 EPAMAHAIIA

Kultura eta argazkilaritza arloko pertsonak osatuta egongo da epaimahaia eta berak emango du lehiaketako epaia.

9 EPAIA

Epaia 2006ko abenduaren 15ean emango da. Sari-banaketa, berriz, larunbatean, abenduaren 16an, izango da, 12:00etan Kultur Leioan. Epaimahaiaren ustez, aurkeztutako lanek arte aldetik behar besteko kalitaterik ez badute, epaimahaiak sariak eman gabe utz ditzake, lehiaketako mailari eusteko, betiere.

Era berean, beharrezkoak iruditzen zaizkion akzesit guztiak eman ahal izango ditu egokia dela uste badu. Kasu horretan, akzesita irabazten dutenek diploma bat jasoko dute. Epaimahaiaren epaia apelaezina da eta epaimahaia bera arduratuko da oinarri hauen inguruan sor daitekeen zalantza, ustekabeko eta interpretazio oro argitzeaz. Epaimahairen irizpidea gailenduko da beti.

10 SARIAK

Jarraian zehaztuta daude ezarritako sariak. Egileek ezin dituzte bi sari irabazi.

- 1go saria (koloretan): 350 euro eta diploma.
- 1go saria (zuri-beltzean): 350 euro eta diploma.
- Saria argazki-muntaia onenari: 350 euro eta diploma.
- Hiru argazkiko multzorik onena: 350 euro eta diploma.
- Herriko lanen artean argazkirik onena: 240 euro eta diploma.

“Argazki-muntaia onenarentzako saria” jasotzeko hautagai izan nahi izanez gero, inskripzio-ormian jakinarazi behar da.

11 JABETZA

Leioako Udala geratuko da saritutako lanekin. Horrela bada, lanak erakutsi eta kopiak atera ahal izango du eta inork ezin izango dio egile-eskubideak ordaintzeko eskatu. Lanak Udaleko kultur ondarearen zati bihurtuko dira eta inork ezin izango ditu saldu edo erosi.

12 ERAKUSKETA

Aurkeztutako argazkietako batzuk Kultur Leioan (Jose Ramon Aketxe plaza, 11) erakutsiko dira 2006ko azaroaren 27tik abenduaren 30era bitartean.

13 LANAK ITZULTZEA

Erakusketa amaitu eta hurrengo 30 egunetan itzuliko dira saririk jaso ez duten lanak. Antolatzaileek kontu handiz zainduko dituzte aurkeztutako lanak baina lanok galdu edo hondatzen badira, ez dute bere gain erantzukizunik hartuko.

14 DHARRAK

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak goitik behera onartzen direla esan nahi du. Bidaltzen diren lanak bidean hondatu edo galtzen badira antolatzaileak ez du erantzukizunik izango.

DATU PERTSONALAK BABESTEKO ABENDUAREN 13KO 15/1999 LEGE ORGANIKOAREN 5. ARTIKULUA BETEZ, JAKINARAZTEN DIZUGU INPRIMAKI HONETAN SARTUKO DITUZUN DATUAK KULTURA SAILEKO LEHIAKETEN FITXATEGIAN ARTXIBATUKO DIRELA, HELBURUA DEITUTAKO LEHIAKETAKO IZANGAIK EZAGUTZEA DELA, INFORMAZIO-JASOTZAILEAK LEIOAKO UDALEKO KULTURA SAILEKO LANGILEAK ETA ARDURADUNAK IZANGO DIRELA, ETA FITXATEGIAREN ARDURADUNA LEIOAKO UDALA DELA (ELEXALDE AUZOA 1).

20. argazki lehiahetza

izena
emateko
exartela

Gutunazal itxi batean bidali.

Izena _____

Abizenak _____

Helbidea _____

Heria _____ P. K. _____

Telefonoa _____ e-maila _____

Probintzia _____

1go argazkia _____

2. argazkia _____

3. argazkia _____

Behean adierazitako argazkiekin parte hartu nahi dut

“Argazki-muntaia onenarentzako Sarian” _____
